# (EUSKO-IKASKUNTZAREN BATZARRA NAGUSIAN ESANDAKOAK, OÑATIN 1978.IX.17 TEXTOS LEIDOS EN LA ASAMBLEA DE OÑATE, 17.IX.78)

## BAZKIDEEI ONGIETORRIA

Jaun-andreok!

Nere lenengo itz auek zuek agurtzeko eta zuei ongietorria emateko izan bitez. Baita gure lurraldeetako aintzindarien ordezkariei eskerrak agertzeko ere.

Irurogei urte igaro dira, Eusko-Ikaskuntzen lenengo batzarra emen, Oñati'n, egin genduan ezkero. Emen egon ziran orduan Euskalerri guztiko aintzindariak eta, auekin, ezin neurtu alako laguntalde aundia, erri-mailla guztietarakoa.

Oriek danak, beren erri eta ezikerari buruz zerabilzkiten asmakizunentzat argibilla etorriak; beren euskaltasuna agertu eta albizitzera; eta elkargo bat eratzera, Euskalerria eta euskal-ezikera orain, leen eta beti izan dan bezela asmoz eta jakitez ikasi al zezan elkargoa alegia.

Xede oni begira batzar artarik sortu zan Eusko-Ikaskuntza izeneko elkartea.

Elkarte onek, Euskalerri guztiko ikastun ospetsuenak beregan bilduaz, bere neurrian lan onik egin zuan 1936 garrena arte. Bainan orduan gudak itxi zizkion bideak eta naastu zituan aren egikuntzak.

Aspaldi artatik onuntz, Oñati'ko leen-batzarre artan bildu ziren asko il zaizkigu, geienak noski. Ez ordea guztiak. Garai aietan Eusko-Ikaskuntza elkargoan buruzagi zirenetarikorik, bizi gera batzuok; geroztik ere al-genduena egiñaz ibili geranok, naizta oztopo gogorretan jauzika. Beti ordea 1918 garrengo ekinaldi arek asierazitako lanetan alegindunaz eta bere zuzenbideari jarraituaz.

Berriro gaur gatoz Oñati'ra gure elkartearen zurajea berritzeko asmoan eta bere eginkizunei lagun berriekin eta guztion indarrez ekiteko xedean gogoturik.

Orain, itzaurrea azkentzeko, nere ongietorria berriro denoi eta guztion kemenez gure elkargoa euskal-ikerketen eta ikaskuntzen ardatz eta euskal-ikerlen biltokia, leen bezela izatera eraman dezagula.

Orain asten dugu gaurko batzarra.

---

* Los cuatro textos en bilingüe seguidos, dos en euskara y dos en castellano, están sacados del libro *Asamblea General de la Sociedad de Estudios Vascos - Eusko Ikaskuntzaren Batzarre Nagusia*, 17.IX.1978, ps. 7-16, San Sebastián. 1979.

# RECEPCION Y SALUDO A LOS ASAMBLEISTAS

Señoras y señores:

Mis primeras palabras sean de respetuoso saludo y de cordial bienvenida para cuantos habéis llegado a esta asamblea. Y mis saludos y expresión de mi agradecimiento, en nombre de la Sociedad de Estudios Vascos, a los dignos representantes de nuestras Diputaciones y de esta villa de Oñate, de larga y gloriosa historia.

Sesenta años han pasado desde que se celebró en este mismo lugar el primer Congreso de Estudios Vascos. En él estuvieron presentes las autoridades de todas las regiones de nuestra tierra y una muchedumbre inmensa de compatriotas nuestros pertenecientes a todas las clases sociales del país.

Los traía aquí un noble afán de estudiar trascendentales problemas de su pueblo, de este pueblo nuestro al que tanto debemos, a afirmar y cultivar su propia conciencia de vascos y a crear una institución que inquiriese su cultura actual, en sus raíces y en su largo proceso diacrónico, investigando y aprendiendo «asmoz ta jakitez».

En efecto, en aquel Congreso nació la Sociedad de Estudios Vascos, como entidad unificadora y directriz del renacimiento de nuestra cultura.

Y esta Sociedad, que reunió en su seno, en estrecha colaboración, egregias mentalidades de toda Vasconia, trabajó normalmente hasta el año 1936. La guerra interrumpió o suspendió casi todas sus actividades.

Desde aquella ya remota fecha, han ido muriendo gran parte de los que actuaron en aquel primer Congreso de Oñate. Pero no todos. De los miembros del Consejo Permanente de aquella primera etapa de la Sociedad de Estudios Vascos aún quedamos varios supervivientes que, en la medida de nuestras posibilidades, en medio de grandes dificultades no pocas veces, hemos procurado seguir algunas de sus labores conforme a las orientaciones marcadas por aquella memorable sacudida que fue el Congreso del año 18.

Hoy nos presentamos de nuevo aquí con deseos de renovar los cuadros de aquella Sociedad y de reorganizar sus trabajos con nuevos elementos, con la colaboración de todos vosotros.

Ahora, para terminar, reitero mi bienvenida a todos y que, con aportaciones de todos, logremos que nuestra Sociedad sea centro de investigaciones y de estudios vascos, centro de unión o convergencia de todos los vascólogos de aquí y de todo el mundo.

# «EUSKO IKASKUNTZA»REN KONDAIRA LABURRA

Jaun-andreok!

Ez degu esan bearrik orain eta emen, Oñati'ko lenengo Euskal-Ikaskuntzen Batzar-nagusia nola egin genduan.

Batzar ura egiteko asmoa Apraiz'tar Aingeru, gasteiztarrak, agertu zuan lenengo, Bilbo'n egin zuan itzaldi batean. Barcelona'ko Ikastola-nagusian edo Unibertsitatean irakasle zan bera.

Asmo aren berria edatu zan an-emenka Euskalerrian. Gure aldundi guztiak onartu zuten; baita Euskalerrian zear erriak, elkargoak eta berri ori jakin zuten lagunak ere. Orregatik denen laguntzen bidez, batzar ura egin al izan zuten.

Batzarrak zortzi erlotan banatu zituan bere egikuntzak: Elkarte-ikaskuntza, Antropologikoak, Sendagintza, Izkuntza, Edestia, Ertiak, Irakaskuntza eta Eusko-Ikaskuntzak. Geroago berriz, azken batzar-nagusietan, ba-zituan ogeita iru erlo.

Oñatiko Batzarrak, bere arauan, auxe agertu zuan: bere egiteko bat, euskal-ikaskuntzai eta euskal-ezikerari eragin eta aurreraziko zion elkarte bat eratzea zala. Ortik sortu zan *Eusko-Ikaskuntza* izeneko elkartea.

Eta ala, batzarraren azken-egunerako elkarte berriaren araua onartua izan zan.

Elkarte onek bere etxe, biltoki eta liburutegitzat Gipuzkoako Aldundiaren jauregian gela aundi bat artu zuan.

Laster elkargoak eratu zituan, Euskalerriko iri-buruetan, bere ordezkari taldeak; baita Madril'en, Barzelona'n eta Buenos-Aires'en ere.

Eusko-Ikaskuntza'ren egintzen alorretatik sortu ziran beste elkarte batzuek: Euskaltzaindia eta Gasteiz'ko Ikerketen-elkartea (Etniker edo ezikeren aztertegia, Leen-gizakien ikastegia, eta Berezkoen ikastegia).

Beste elkargo batzuek ere bil zitzaizkion Eusko-Ikaskuntza'ri: Eusko-Folklore elkargoa batez ere.

Eusko-Ikaskuntzaren asmoetako bat, gure lurraldeazaz, euskal gizakiazaz eta bere ezikerazaz dabiltzkigun ikaslanak jakiunda orokorren ibilbidean sarreraztea izan zan.

Orrela Ikastola-nagusirik ezean, onen lanak, al zuen neurrian, bere gain artzen alegindu zan: irakasaldiak Euskalerrian zear toki askotan eta maiz eginaz, ortarako jakintsuai deituaz. Lanbide auetan erabili zituan ainbeste jakintsu, bertakoak, naiz erbestetik ekarriak: Etxegarai, Aranzadi, Urkixo, Azkue, Kam-

pion, Elizalde, Apraiz, Menendez Pidal, Lakombe, Navarro-Tomás, Ameriko Kastro, Griera, Martorell, Ettore Pais, Henri Gavel, Farinelli, Urtel, Meyer-Lübke, Bosch-Gimpera, Yud, Obermaier, Frankowski, Colas, e.a.

Xede beragaz bialdu zituan ikasle asko erbestera, ango ikaskuntzezaz jabeturik itzultzean, emen beren jakiunda eda zezaten.

Bertako ikerketai bere indar eta laguntza eman zien gai eta arlo askotan: arkeologi, Edesti eta oikunde eta beste euskal-legeai buruz esate baterako.

Irakaskuntzari laguntzeko, 50 liburu argitarazi zituan, baita 80 liburuxka ere.

Gañera aldizkariak. Auetako izentatuena RIEV.

Euskera erakusteko ikastolak eraiki zituan, eta irakasleak eratzeko bideak artu, batez ere irakasletzako ikastegia eraikieraziaz.

Ikastola-nagusi bat bederen Euskalerrirako bear genduela-ta, alegiñak egin zituan baimena eskuratzeko: ori ordea etzuen ikusi al izan.

Euskalerriko lanbide guztietan bere laguntza agertu zuan: nekazariai, abelzaineri, arrantzaleai eta olagintzari, laguntzeko irakasaldi egokiak eratu zituan.

Euskalerria bere-buru jartzeko bear ziran zuzenbide eta zurajeak ikasten eta erakusten ere arretaz alegindu zan.

Beste bere egikuntza bat Batzar-nagusiak —ikaskuntzen batzarrak— eratzea izan zuan. Zazpigarren Batzar-nagusia moldatzen ari zala —Estella'n egin bear zana, alegia—, 1936 garrengo guda izugarri ura asi zan.

Onek geldierazi zituan Eusko-Ikaskuntzaren lanak. Bere lagunaldea, emen ixilerazia andana bat; besteak, erbestean sakabanatuak. Ori bera egin zuan Eusko-Ikaskuntzarekin lotuak zebiltzan beste elkarte guztiekin ere.

Bainan erbesteratuak jarrai al izan zuten, batzuek bederen, beren egikuntzetan. Etniker edo Etnologi-gaietako elkartea eta Euskal-leen aroen ikastegia Ipar-Euskadi'n ari zan azterketai ekinaz eta *Eusko-Folklore* aldizkaria eta IKUS-KA izeneko liburuxkak argitaraziaz. Baita RIEV aldizkariaren ordez *Eusko-Jakintza* aldizkaria ere argitarazi zuan.

Eusko-Ikaskuntza'ren beste egintza bat, aipa bearrekoa, Ikaskuntzaren Batzar- nagusiak egineraztea edo eratzea izan baitzan, orregatik erbestean zeuden bazkideak eratu zituzten bi Batzar-nagusi: 1948n urteko agorrilean bat, Miarri-tze'ko *Licée* ikastolan, lagunalde aundia bildu zuana; bigarrena 1945n urtean Bayonako *Musée Basque*'n eta Uztaritz'ko Seminarioan egina.

Bitartean emen, etzan baimenik euskal-ezikera adierazi lezakean egintzetako, ezta liburu edo idazkirik argitarazteko ere. Gero, otzaldi ura biguntzen asi zelarik, berpiztu ziran *Euskaltzaindia* eta *Real Sociedad de A. del P.*, *Aranzadi* elkargoarekin eta *Academia Errante* zalazkoarekin.

Elkargo auek geroztik, eta berriki azaldu zaizkigunak, arau baten ondoren doaz. Eusko-Ikaskuntza ere bai. Onek ba-du bere araua garbiki zurajetua. Bainan oroi bear degu, oraingo mundu au ez dala guda-aurrekoa bezala. Orain teknikak, erainkinak, nagusialdeak, lantegiak eta milla eratako estugarriak edo erasoak darabillela gizaki bakoitza aizeak orbela bezala; bainan geldiur gabe-

ko igitze ontan ere zenbait gauza beti dirauten dutenak ba-dirala eta berak oiñarritzat artu bearra dugula, aurrera jo bear bada. Oinarri edo egikuntza iraunkor auetako bat, auxe: ikerketa. Eta gure *Eusko-Ikaskuntzak* ala bear du izan: Ikerketa oiñarritzat darabillen elkartea. Agur.

# BREVE HISTORIA DE LA SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS

Señoras y señores:

No hace falta que expliquemos cómo fue aquel primer Congreso de Oñate y qué actos tuvieron lugar aquí en los días que duró su celebración.

La idea de una asamblea general de la que naciera la Sociedad de Estudios Vascos fue lanzada por D. Angel de Apraiz, vitoriano, a la sazón catedrático de la Universidad de Barcelona. El la expuso en una conferencia que diera en Bilbao.

La idea se propagó luego y, gracias al apoyo de las Diputaciones vascas y a la entusiasta adhesión de numerosas entidades y particulares, desde Zuberoa y Roncal hasta Carranza y Valdegobía, pudo celebrarse aquella magna asamblea. Esta comprendía ocho sesiones: Ciencias sociales y políticas, Antropología, Medicina, Lengua, Historia, Artes, Enseñanza y Estudios Vascos.

En el plan de la asamblea se decía que uno de los objetos de la misma era promover la formación de una entidad que diese permanencia al espíritu que a ella informara y que perdurase como unificadora y directriz del renacimiento de nuestra cultura. Así nacía la Sociedad de Estudios Vascos como fruto del Congreso de Oñate.

En efecto, para el día de su clausura se había aprobado el reglamento de la nueva Sociedad, y cada una de las secciones de congreso había nombrado para ella dos vocales, que, con los delegados de las Diputaciones provinciales, habían de constituir la Junta Permanente de la Sociedad de Estudios Vascos.

La Sociedad instaló sus oficinas en el Palacio de la Diputación de Guipúzcoa, así como su sala de reuniones y su biblioteca.

Luego se formaron diversas delegaciones, como las de las capitales de nuestro país, y otras en Madrid, en Barcelona, en Buenos Aires, etc.

De las mencionadas secciones del Congreso y de la Sociedad surgieron diversos grupos o entidades, como la Academia de la Lengua Vasca y el Instituto de Investigaciones Científicas que, fundado en Vitoria, comprendía el Laboratorio o Seminario de Etnología, el Centro de Estudios Prehistóricos y el Centro de Investigación de Ciencias Naturales (Mineralogía, Zoología, Botánica y Geología).

Otros grupos se le incorporaron a la Sociedad, como *Etniker* o Sociedad de Eusko-Folklore, que tenía por objeto la investigación de la cultura tradicional vasca y su proceso contemporáneo.

Una de las preocupaciones de la Sociedad fue la metódica investigación de nuestra tierra en todos sus aspectos y del hombre vasco y de su cultura e incorporar tales esfuerzos a las corrientes de la ciencia universal.

Procuró ir así remediando, en cuanto le era posible, la falta de una Universidad Vasca. Así, por sus cursos y ciclos de conferencias, que fue organizando frecuentemente en diversos puntos del país, pasaron figuras eminentes de nuestra tierra y de fuera de ella, como los Echegaray, Aranzadi, Urquijo, Azkue, Campión, Elizalde, Apraiz, Menéndez Pidal, Lacombe, Navarro-Tomás, Américo Castro, Griera, Martorell, Ettore Pais, Henri Gavel, Farinelli, Urtel, Meyer-Lübke, Bosch-Gimpera, Yud, Obermaier, Frankowski, Colas, etc.

Con análogo objeto envió becarios al extranjero, encargando a personas idóneas para cada caso, como lo hizo para el estudio del régimen fiscal en Francia y Suiza; para el de las organizaciones sociales y cooperativas en Francia, Alemania y Dinamarca, y Estados Unidos; para el de la enseñanza en Francia y en Bélgica; para el de Horticultura intensiva en Francia e Inglaterra, y para el de las escuelas de pesca en el norte de Francia y en Alemania.

Impulsó vigorosamente la investigación de nuestras antigüedades, de nuestra Historia y tradiciones, de nuestro derecho consuetudinario, etc.

Fomentó las ediciones de libros sobre diversos temas de estudios, de literatura y de otras artes, particularmente en vascuence. Publicó también numerosas memorias, resultado de las investigaciones que ella misma había promovido. Publicó igualmente 14 volúmenes con memorias de las investigaciones de su Seminario de Etnología vasca, 16 volúmenes de la RIEV, 4 Boletines de la Sociedad cada año, 8 Memorias de la Sociedad, 1 libro de la Asamblea de la pesca marítima y 5 volúmenes correspondientes a otros tantos Congresos de Estudios Vascos celebrados.

La elevación del nivel cultural del pueblo vasco le preocupó fundamentalmente. Así atendió a la formación del personal para la enseñanza, como se vió, por ejemplo, en las largas gestiones realizadas para conseguir una escuela normal de magisterio en el país; atendió también a la necesidad de libros de texto, publicándolos en vascuence; estableció cátedras de lengua vasca, no sólo en el país, sino también fuera, como en Madrid y en Barcelona. Realizó trabajos de tanta trascendencia como el proyecto de Escuela Primaria Elemental Vasca, bases sobre el bilingüismo escolar, etc. Organizó asambleas como la de Administración Municipal Vasca y la de Pesca Marítima. A petición de las cuatro provincias hermanas y de los Ayuntamientos, preparó y redactó el Proyecto de Estatuto Vasco en 1931.

La Universidad Vasca fue otra de sus preocupaciones. Así, en la sesión que su Junta Permanente celebró en los días 27 y 28 de junio de 1919, acordó gestionar activamente de las cuatro Diputaciones Vascas el mutuo acuerdo para el establecimiento de una Universidad en el país; y que, si dichas corporacio-

nes hallaban obstáculos para convenir en una solución, delegaran tal extremo en la Sociedad de Estudios Vascos, entidad puramente cultural en la que todas aquellas corporaciones estaban representadas.

Atendió también a los problemas de la vida popular, particularmente a la instrucción general y a la especial correspondiente a cada modo de vida —modo de vida agrícola, forestal, ganadero, marinero e industrial—. Para ello organizó, además, la asamblea de la pesca marítima ya citada, numerosos cursos en muchas localidades, bien en vascuencen bien en castellano, según las exigencias de los lugares y de los públicos.

La despoblación del caserío y de las aldeas era otro de los temas estudiados, así como también el del urbanismo.

Problema de gran trascendencia que interesó desde su origen a la Sociedad fue el de la Autonomía Vasca. Preparaba su estudio para el Congreso de 1924, (que hubo de suspenderse); lo reanudó el año 1930 con el resultado por todos conocido.

Otra de las actividades consistió en la organización de los Congresos de Estudios Vascos, en los que movilizó a muchos hombres de valer en las ciencias puras, en las aplicadas, en las artes, etc.

Preparó su VII Congreso, que versaría sobre Historia, y se celebraría en Estella, cuando estalló la guerra de 1936.

Con esto quedaron suspendidas sus actuaciones normales. Su personal, paralizado aquí o disperso por otras tierras. Lo mismo ocurrió con el de las instituciones ligadas con la Sociedad, con Euskaltzaindia, el Instituto de Investigaciones Científicas, Euskaltzaleak, Euskeraren ariskideak, «Grupo Baraibar», etc.

Los elementos o socios dispersos en el extranjero pudieron proseguir, con grandes limitaciones, algunas actividades de la Sociedad de Estudios Vascos. Así, Etniker o Seminario de Etnología y el Centro de investigaciones prehistóricas trabajaron en Euskadi norte ayudados por colaboradores de aquella región y, en parte, subvencionados por el Gobierno Vasco en exilio... Por eso continuó allí la publicación de Eusko-Folklore y una revista que sustituyó, en parte, a la RIEV, es decir, *Eusko-Jakintza.*

Aquí debemos mencionar dos Congresos Internacionales de Estudios Vascos organizados por elementos de Eusko-Ikaskuntza exiliados. El primero se tuvo en el Liceo de Biarritz en setiembre de 1948; el segundo, en 1954, en el Musée Basque de Bayona y en el Seminario de Ustaritz. Intervinieron en ellos eminentes profesores, vascos y no vascos venidos de diversos países de Europa y de América, cuyas lecciones fueron seguidas por numerosos congresistas durante toda la semana que duró cada congreso.

En este lado del Pirineo aquel período «glacial» iniciado por la guerra sólo permitía aquellas publicaciones y actuaciones que no recordaran la conciencia pública de lo vasco. Después, en cuanto empezó a ser más templado el clima, fueron apareciendo unos grupos de estudios y reapareciendo otros, como Eus-

kaltzaindia, Real Sociedad de Amigos del País, Aranzadi, etc. Entre ellos, hubo ensayos como el representado por la Academia Errante, grupo de intelectuales que, para su tiempo, era un desafío bastante audaz.

Tales grupos y los nuevos que ahora han surgido tienden hacia un ideal, cada cual en su predio y por su camino, o entreverándose a ratos.

La Sociedad de Estudios Vascos tiene su programa y tiene hechas sus experiencias. Pero deberá tener presente que el mundo de hoy no es el de hace medio siglo. El hombre actual se halla en un medio dominado por la técnica, cuyos elementos son la máquina, la empresa, el taller, el sindicato,en seguros y poderosos medios de comunicación que le llenan de innumerables especies e iconos su campo de visión: ambiente artificial que repercute hondamente en el conjunto de los fenómenos sociales y en las condiciones síquicas de los hombres. Pero en este proceso incesantemente evolutivo existen ciertas constantes o quehaceres básicos que no pierden actualidad. Entre éstos se halla el de cultivar o promover la investigación en todos los aspectos de la cultura y el de fomentar cuantas actividades sean necesarias para el desarrollo de los estudios vascos. Eso debe ser ante todo nuestra Sociedad de Estudios Vascos: un centro de investigación en todos los ramos del saber y promotor de los conocimientos de nuestra tierra, de nuestro pueblo y de sus necesidades. Que Dios nos ayude en esta tarea.